

## GOBERNU BATZARRA

2017.11. 20

<b>Alkatea:</b>	Tolosako Udaletxean, bi mila eta hamazazpiko azaroaren hogeian, 08:00etan, Gobernu Batzarra bildu da ohizko bilera egiteko. Mahaiburua alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrendan agertzen diren puntuak tratatzeko.
<b>Olatz Peon Ormazabal</b>	
<b>Zinegotziak:</b>	
<b>Patxi Amantegi Zubiria</b>	
<b>Nerea Letamendia Belloso</b>	
<b>Jokin Azkue Arrastoa</b>	1.- Aurreko akta onartzea.
<b>Iñigo Alonso Sarasibar</b>	2.-Izapideen eskuliburuaren aplikazioa eta espedienteen kudeaketa-programa onartzea, eta programako bitarteko funtzionario izendatzea.
<b>Idazkaria:</b>	
<b>Begoña Garmendia Vazquez</b>	3.-61/2017 eta 62/2017 faktura-zerrendak.
<b>Kontuhartzaitza:</b>	
<b>Ainhoa Molinos Zubiaurre</b>	

### 1.- Aurreko akta onartzea.

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2017ko azaroaren 13an egindako batzarraren akta aztertu eta aho batez onartu da.

### 2.-Izapideen eskuliburuaren aplikazioa eta espedienteen kudeaketa-programa onartzea, eta programako bitarteko funtzionario izendatzea.

Herri Administrazioetako Administrazio-Prozedura Erkidea arautzen duen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 7. Azken Xedapenak lege honen aplikazioa bi fasetan gauzatzea aurreikusitua zuen. Lehena, nagusiki administrazio-jardunbidearen oinarritzko xedapenei dagokiena, 2016ko urriaren 2an sartu zen indarrean. Bigarrena, Administrazio Publikoen Erregistro Elektronikoari, ahalordetzeen eta gaitasuna duten funtzionarioen erregistroei, administrazioen sarbide puntu bakarrari eta artxibo elektronikoko bakarrari eragiten diena, 2018ko urriaren 2an sartuko da indarrean.

Lege honek aldaketa handia eragin dio Udalaren funtzionamenduari. Hona hemen aldaketa nabarmenenak: orain arte paperean jasotzen zena, -espedienteak-, euskarri informatikoetan (ere) jaso beharko dira; jadanik herritarrek eskubidea dute administrazioarekin dituzten harremanetan ohiko baliabideak ala soilik baliabide elektronikoak erabiltzeko; subjektu batzuek derrigorrez erabili behar dituzte baliabide elektronikoak administrazioarekin dituzten harremanetan: pertsona juridikoek, profesionalek eta nortasun juridikorik gabeko kolektiboek; herritarrei erraztasunak eman behar zaizkie beraien eskaerak era elektronikoan bideratzeko...

Egoera honen aurrean, Tolosako udal zerbitzuen funtzionamendua antolatu eta egokitu behar da. Asmo horrekin, Udala **Izapideen Eskuliburua** gauzatzeko programan sartu zen 2017ko ekitaldian. Programa honen helburu nagusia da herritarren eraginez burutzen diren izapideak identifikatu, antolatu eta zerrenda bat osatu. Horretaz gain, udal departamentu ezberdinetan prozesu bat garatu behar da, Izapideen Eskuliburuan jasotakoa zehazteko eta izan daitezkeen koordinazio-akatsen aurrean irtenbideak bilatzeko.

Halaber, Izapideen Eskuliburuarekin batera, udal departamentuek izapidetzen dituzten espedienteak aztertu, definitu eta sistematizatu egin behar dira, euskarri elektronikora pasa aurretik. Lan honetan ere ezinbestekoa izango da departamentuen arteko elkarlana eta koordinazioa.

Programaren helburu nagusiak ondoko hauek dira:

- 39/2015 Legeak xedatzen dituen betebeharrak betetzea, batez ere espediente elektronikoari eta erregistro elektronikoari dagozkionak.
- UDATE zerbitzua indartzea, eta era horretan, herritarrei eskaintzen zain arreta zerbitzua hobetzea.
- Udaleko departamentuetako funtzionamenduaren eraginkortasuna hobetzea.
- Udaleko departamentuen arteko koordinazioa hobetzea.
- Administrazio elektronikoaren ezarpena bermatzea.

Aipaturiko helburuak betetzearren, ondoren aipatzen dira zeregin nagusiak:

### **IZAPIDEEN ESKULIBURUAREN BALIABIDEA GAUZATZEA**

1. Izapideen Eskuliburua sozializatzeko jardunbide bat diseinatzea, udal departamentu guztien parte hartzearekin.
2. Izapideen Eskuliburua amaitzea eta bere edukia aztertzea, indarren dagoen legeria kontuan hartuta.
3. Legeak eskatzen dituen izapideak txertatzea, bere kasuan.
4. Eskuliburuaren behin betiko testua lantzea, udal departamentuen partaidetzarekin. Bereziki, departamentuen arteko koordinazioa landuko da eta irizpideak adostuko dira.

5. Behin betiko Eskuliburua diseinatzea.
6. Izapideen Eskuliburua zabaltzeko jardunbideak garatzea.
7. Tolosako UDATE zerbitzuak Izapideen Eskuliburuaren erabilera martxan jartzea, eta, orokorrean, Udaleko pertsonalari beharrezkoa den formazioa ematea.
8. Herritarren artean Eskuliburuari buruzko informazioa zabaltzeko laguntza ematea.
9. Izapideen Eskuliburua eguneratzeko irizpideak ezartzea.
10. Izapideen Eskulibururako IZFEk diseinaturiko programa informatikoa elikatzeko informazioa gainbegiratzea eta zuzentzea, bere kasuan.

#### **UDAL ESPEDIENTEAK KUDEATZEKO PROGRAMA INFORMATIKOA ANTOLATZEA**

Gai honi dagokionez, kontuan hartu behar da IZFE jakinarazpen elektronikoaren aplikazioa garatzen ari dela, administrazioarekiko harremanetan baliabide elektronikoak erabiltzeko herritarrek duten eskubidea bermatzearen. Tolosako Udalak ere, herri-administrazioa den heinean, herritarren eskubide hau bermatu behar du, baina hori egin aurretik, udal departamentuetan izapidetzen diren espedienteak definitu, sailkatu eta antolatu egin behar dira, ondoko hauek kontuan hartuz:

1. Departamentu bakoitzean izapidetzen diren espedienteak zerrendatu eta sailkatu behar dira.
2. Horretaz gain, espediente bakoitzaren izapideak aztertu behar dira, indarrean dagoen legeriaren ikuspuntutik.
3. Izapidetzeren bat faltan edo soberan egonez gero, espedientea egokitu egin beharko da.
4. Departamentuen arteko koordinazioa bermatu behar da, eta maila honetako arazoak konpontzeko irizpideak adostu. Horretarako, ezinbestekoa izango da prozesu bat garatzea, departamentuen partaidetzarekin, funtzionamenduko irizpideak ezartzeko helburuarekin.
5. Espedienteak izapidetzeko epeak zehaztuko dira, legeek ezarritako epeak betetzen direla bermatuz.
6. Espedienteen izapideen ereduak lantzea, Udaleko zerbitzuen funtzionamenduaren erraztasuna eta eraginkortasuna hobetuz.

Tolosako Udalaren Lanpostuen Zerrenda aztertuta, egiaztatu da zeregin hauek ez daudela txertatuta inongo lanpostutan. Bestaldetik, hasiera batean, lan hauek aldi baterako izaera dute, eta ez dute izaera estrukturala. Arrazoi hauengatik, deskribatu diren zereginen Programa bat osatuko dute, aldi baterako funtzionario batek burutu dezan. Kasu honetan,

FRANCISCO JAVIER ARANIGURIA RODRIGO jn. izendatzea proposatzen da, ondoren aipatzen diren arrazoiak kontuan hartuta.

Programa hau HIRU HILABETEAN behin ebaluatuko da, eta ondorengo adierazleak -beste batzuen kalterik gabe- aztertuko dira:

- Aztertu eta onartu diren izapideak.
- Udal departamentuekin egin diren bilerak.
- IZFEko programa informatikoaren betetze-maila: zenbat izapide sartu dira.
- Aztertutako espedienteen kopurua.
- Departamentuen artean adostutako irizpideen kopurua.

## KONTUAN HARTURIK

I.- Aplikatu beharreko Funtzio Publikoko araudia dela-eta, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 3. artikulua toki erakundeetako personal funtzionarioari dagokionez, ondokoa xedatzen duela: ***“1. El personal funcionario de las Entidades Locales se rige por la legislación estatal que resulte de aplicación, de la que forma parte este Estatuto y por la legislación de las Comunidades Autónomas, con respeto a la autonomía local. (...)”***

I.1. Izendatzea proposatzen den enplegatua bitarteko funtzionarioa izango dela, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 10. artikuluan xedatutakoaren arabera. Artikulu honek, bere 1. atalean bitarteko funtzionarioak zerrendatzen dituenean, ondokoa xedatzen du, Sektore Publikoa Arrazionalizatu eta Administrazioa erreformatzeko beste neurri batzuk ezartzen dituen irailaren 16ko 15/2014 Legeak xedaturiko aldaketak kontuan hartuta: ***“1. Son funcionarios interinos los que, por razones expresamente justificadas de necesidad y urgencia, son nombrados como tales para el desempeño de funciones propias de funcionarios de carrera, cuando se dé alguna de las siguientes circunstancias:***

a) *La existencia de plazas vacantes cuando no sea posible su cobertura por funcionarios de carrera.*

b) *La sustitución transitoria de los titulares.*

c) *La ejecución de programas de carácter temporal, que no podrán tener una duración superior a tres años, ampliable hasta doce meses más por las Leyes de Función Pública que se dicten en desarrollo de este Estatuto.*

d) *El exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses.*  
*(...)”*

Atal honetan xedaturikoaz gain, 15/2014 Legeak, 10. artikuluan, 6. atal berria sartu zuela, eta bitarteko programako funtzionarioei eragiten dienez, kontuan hartu beharrekoa dela: **“6. El personal interino cuya designación sea consecuencia de la ejecución de programas de carácter temporal o del exceso o acumulación de tareas por plazo máximo de seis meses, dentro de un período de doce meses, podrá prestar los servicios que se le encomienden en la unidad administrativa en la que se produzca su nombramiento o en otras unidades administrativas en las que desempeñe funciones análogas, siempre que, respectivamente, dichas unidades participen en el ámbito de aplicación del citado programa de carácter temporal, con el límite de duración señalado en este artículo, o estén afectadas por la mencionada acumulación de tareas.”**

Euskal Autonomia Erkidegoko Funtzio Publikoko legediak, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 91. artikulua eta ondorengoek bitarteko funtzionarioen erregimena arautzen dutela. Ondokoa xedatzen du 91. artikulua 1. atalak: **“1. Izendapenez eta presako arrazoiengatik, zerrendako lanpostu hutsak karrerako funtzionarioz bete arte edo, horiek ez dauden kasuetan, horien ordezkotza egiteko sar daitezenez dira bitarteko funtzionario.”** Aipatu lege-xedapenean programako bitarteko funtzionarioei aipamenik egiten ez badie ere, Lege horren 17. Xedapen Gehigarriak programako bitarteko funtzionarioak arautzen ditu: **“91. artikuluan xedaturikoaren kalterik gabe, Autonomia Erkidegoko Foru eta Toki Administrazioek, aldi baterako programak egikaritzeko bitarteko funtzionarioak izendatu ditzakete.”**

**1.2.** Bitarteko funtzionarioaren hautaketari dagokionez, berriz, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 10 10.2 artikulua xedatzen duela bitarteko funtzionarioen hautaketa berdintasun, merezimendu, gaitasun eta publizitate printzipioak aintzat hartuko dituen jardunbide azkarren bidez egin behar da, aurrez horiek izendatzeko beharra eta urgentzia justifikatuta.

Zentzu berean, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen uztailaren 6ko 9/1989 Legearen 33. artikulua ondorengoa xedatzen duela: **“33. atala.1. *Bitarteko funtzionarioak eta aldi baterako langilegoa arauz jarritako prozedurari jarraiki aukeratuko dira, agiritasun, berdintasun, merezimendu eta gaitasun-erizpideak kontutan izanik eta ahalik eta bizkorren jokatzen saiatuz. Dena dela, bitarteko eta aldi baterako langile-goak titulaziori buruzko eskakizun nagusiak eta aldikotasunez beteko duten lanpostura iristeko edo bete behar duten egitekorako eskatutako gainerako baldintzak bete beharko dituzte.*”**

Halaber, Euskal Funtzio Publikoa arautzen duen 6/1989 Legeak, lanpostuen hornidurari dagokionean garatzen duen araudiak, Euskal Administrazio Publikoetako pertsonal funtzionarioaren lanpostuen hornidurari buruzko Araudia onartzen duen urriaren 13ko 190/2004 Dekretuko 58. artikulua 2. eta 3. atalek xedatzen dutela **“2. *A falta de normativa específica la selección se hará, con carácter general, entre el personal aprobado en procesos selectivos para el acceso a la condición de personal funcionario o para la formación de bolsas de empleo temporal.***

**3. *Siempre que no impida una gestión eficiente de los recursos humanos, las Administraciones Públicas Vascas colaborarán entre sí, proporcionándose personal integrado en sus bolsas de empleo para el nombramiento de personal funcionario interino.*”**

Azken hilabeteetan Estatu mailan onartu diren toki entitateen administrazio-prozedurari, erregistroen funtzionamenduari, espedienteen kudeaketari, eta, orokorrean, zerbitzuen antolakuntzari eragiten dien legediak udal departamentu guztien lanaren antolaketan, espedienteen kudeaketan eta izapideak gauzatzeko garaian duen eragin zuzena aintzat harturik, Administrazio Orokorreko teknikariaren izendapena erabat beharrezkoa eta presazkoa (programan zehazturiko legedia jada indarrean dagoelako) denez, **190/2004 Dekretuak 58.3 artikulua xedaturiko bidea erabiltzea**, alde batetik, Tolosako Udalak une honetan arlo juridikoan espezializatutako Administrazio Orokorreko teknikarien lan-poltsa propiorik ez duelako ezta berebat ere lan-poltsak kudeatzeko araudi propiorik ere eta bestetik, hautatzeko prozesua abian jartzeak eta hori garatzeak hilabete batzuetako jarduna eskatzen duelako, izendapena 2018ko ekitaldirarte egin ezingo zelarik.

Hori horrela eta aintzat harturik azken hilabeteotan Eusko Jaurlaritzak, Herri Arduralaritzaren Euskal Institutuaren bitartez Administrazio Orokorreko teknikariak hautatzeko jardunbideak garatu dituela, eta horietatik hainbat lan poltsa osatu direla hautaketa prozesua gainditutakoen artean, Administrazio Orokorreko teknikarien lan poltsan dagoen Francisco Javier Araniguria Rodrigo izendatzea proposatu du udal idazkari honek, Tolosako Udalak izapideen eskuliburuaren ezarpena eta espediente elektronikoen antolaketa, zerrendatzea eta osatze-lanak burutu ditzan, dagokion programaren barruan.

Programako bitarteko funtzionario gisa, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikari izendatzea proposatu den FRANCISCO JAVIER ARANIGURIA RODRIGO jn.ak badituela Idazkaritzak finkaturiko programa garatzeko beharrezkoa den titulazioa eta gaitasuna (Zuzenbideko lizentziatura titulua eta 3. HE egiaztatu ditu), baita lan esperientzia ere hainbat Udaletan egindako lanen bidez. Horretaz gain, Tolosako Idazkaritzan bere zerbitzuak eman ditu, Idazkaritzako Administrazio Orokorreko teknikaria ordezkatzuz.

\*\* Oharra: Hizkuntza eskakizunari dagokionez, aipatu behar da Tolosako Udalak antzeko mailako lanpostuetarako 4. HE duela ezarririk, baina ezinezkoa izan dela baldintza guztiguztiak betetzen dituen hautagairik lanean hasteko moduan aurkitzea.

## **2. Estatuko Aurrekontuak arautzen dituen ekainaren 27ko 3/2017 Legearekin egokitasuna.**

**2.1** Bitarteko funtzionarioaren izendapenari dagokionez, Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, bere 19.Dos artikuluan, honako hau xedatzen du: *No se podrá proceder a la contratación de nombramiento de personal estatutario temporal y de funcionarios interinos excepto en casos excepcionales y para cubrir necesidades urgentes e inaplazables.*

**2.2** Pertsonaleko gastuen arloari dagokionez, Estatuko Aurrekontuak onartzen dituen ekainaren 27ko 3/2017 Legeak, bere aplikazio esparrua 18.Uno artikuluan arautzen du, honen barnean Toki Korporazioak, bere menpeko erakunde publikoak zein entitate pribatuak sartzen direlarik.

Behin aplikazio eremua arautuz gero, 3/2017 Legeak enplegatutako publiko guztien ordainsariak bere horretan mantentzen ditu, aldaketarik gabe, 18. artikulua 2. atalean, honako era honetan:

*“Artículo 18. Bases y coordinación de la planificación general de la actividad económica en materia de gastos de personal al servicio del sector público.*

.....

*Dos. En el año 2017, las retribuciones del personal al servicio del sector público no podrán experimentar un incremento global superior al 1 por ciento respecto a las vigentes a 31 de diciembre de 2016, en términos de homogeneidad para los dos períodos de la comparación, tanto por lo que respecta a efectivos de personal como a la antigüedad del mismo.*

Beraz, Tolosako Udalaren 2017ko Aurrekontuetako dokumentuak bere egin behar izan ditu xedapen hauek, eta pertsonaleko ordainsariak % 1eko gehikuntza izan dute, 2016ko aurrekontuekin alderatuta, homogeneotasun terminoak kontuan hartuta eta hurrengo paragrafoetan adierazten dena salbu.

Xedapen honek salbuespen bakarra dauka, 18. artikulua Siete atalean xedatzen dena:

Siete. Lo dispuesto en el apartado Dos del presente artículo se entenderá sin perjuicio de las adecuaciones retributivas que, con carácter singular y excepcional, resulten imprescindibles por el contenido de los puestos de trabajo, por la variación del número de efectivos asignados a cada programa o por el grado de consecución de los objetivos fijados al mismo.

Hala ere, 3/2017 Legearen 18.Dos artikulua xedatzen du sektore publikoko pertsonalaren ordainsariak gehienez %1 igotzea **“homogeneotasun terminoetan”**, pertsonalaren baliabide zein pertsonalaren antzinasunari dagokiona. Beraz, 2016. eta 2017. urteetako konparaketa giza baliabide berdinetan eta egoera berdinetan oinarritu behar da.

Zer esan nahi du honek? Printzipio hau, homogeneotasunarena, ezin zaiela aplikatu homogeneoak ez diren egoerei. Kasu nabarmena da hirurtekoak betetzen dituen pertsonalarena, pertsonal horri ordaindu behar zaizkiolako funtzionarioen zein lan izaerako langileen araubidea arautzen duten xedapenetan jasotako ordainsariak. Erakunde publikoek (Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lanbidek...) diruz lagunduriko kontratazioak ere ezin dira kontuan hartu atal honetan, zehaztutako aldi baterako egitasmoekin lotuta daudelako, suposatzen duten gastua ia bere osotasunean laguntzen bidez finantzatzen delako eta, behin kontratazio epea amaituz gero, inolako jarraipenik ez dagoelako.

Beraz, 3/2017 Legearen 18.Dos artikulua xedatzen duen homogeneotasunak egoera berdinetan oinarritzen diren elementuen konparaketa hartuko du oinarri gisa, hain zuzen, 2016ko abenduko 31n zegoen egoera -antzinasuna barne- kontuan hartuta, ondorengo Ebazpen Proposamena aurkeztu du Udal idazkariak.

**Beraz, aipatutakoa kontuan izanik, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,**

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Tolosako Udaleko Izapideen Eskuliburuaren aplikazioa ezarri eta espedienteen kudeaketa elektronikoa bideratzeko aurrekarietan zehazturiko **PROGRAMA ONARTZEA, eta hori garatzeko URTE BATEKO EPEA ezartzea.**

Epe horretan, Udal idazkariak aipatu programaren jarraipena egin eta epealdiaren amaieran horren egoera jasotzen duen ebaluazio-txostena eman beharko du.

**BIGARRENA.- FRANCISCO JAVIER ARANIGURIA RODRIGO jn.** programako bitarteko funtzionario izendatzea lanaldi osoan, Udal honetako idazkariak zehazturiko programa burutu dezan.

**HIRUGARRENA.-** Izendapenak **2017ko abenduaren 1etik 2018ko azaroaren 30era** arte izango du eragina.

Halaber, izendapenaren luzapenik egotekotan, Enplegatu Publikoen Oinarrizko Estatutua arautzen duen urriaren 30eko 5/2015eko Errege Dekretu Legegilearen 10.1 c) artikuluan xedaturikoa kontuan harturik, Udal idazkariak programa garatzeko epealdiaren amaieran emandako balorazio-txostenean jasotakoaren arabera egingo da. Era guztietan, programa gehienez beste URTE BAT luzatu ahal izango da.

**LAUGARRENA.-** Behin-behineko izaeraz egindako izendapen honen ondorioz, lanpostuari dagozkion honako ordainsariak jasoko ditu:

Soldata: A1 taldearena  
Destino osagarria: 24  
Berariazko osagarria: 1.047,81 euro hilean

**BOSGARRENA.-** Erabaki hauek interesatuari eta langileen ordezkariari jakinaraztea.

Iñigo Alonso J.k proposamenaren itzulpena eskatu du, eta Idazkariak testuaren itzulpena helarazteko konpromisoa adierazi dio.

### **3.- 61/2017 eta 62/2017 faktura-zerrendak.**

Kontuhartzaitzak **61/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **196,20 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda aztertutik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.- 61/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.-** Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.



.....

Kontuhartzaitzak **62/2017** faktura-zerrenda aurkeztu du, **55.037,89 €**-koa, hain zuzen ere.

Hortaz, zerrenda azterturik, Gobernu Batzar honek, aho batez, eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

### **E R A B A K I D U**

**LEHENA.**- **62/2017** faktura-zerrenda onartzea.

**BIGARRENA.**- Onarpenaren berri ematea Kontuhartzaitzari.

**Eta besterik gabe, bilera amaitutzat jo da 10:00etan.**

**ALKATEA**

**IDAZKARIA**